

# Hautagaitza deialdia

- Euskal idazle egonaldia -

**2021eko udazkena**

Hamaikagarren urtez jarraian, Euskal kultur erakundeak, CPIE Euskal Itsasbazterrak eta Euskal Idazleen Elkarteak (EIE) euskarazko literatura sorkuntza egonaldi bat proposatzen dute Abbadia eremuko Nekatoenean. 2020an bezala, Mundubira 500 Elkano Fundazioaren partaidetzarekin garatuko da.

## **EKOIZPENA ETA BALORIZAZIOA**

Egitasmoak errespetatuak izan beharko duten lau ardatz ditu:

### **1- Literatura sorkuntza**

Sortutako testuak **euskaraz idatzia** izan beharko du eta hautaturiko gaiak ELKANORi lotua izan beharko du. Idazleak nahi duen literatura mota hautatuko du ondoko hauen artean :

- Literatura idatzia (eleberri, olerki, nobela, ipuin, komiki, antzerki, ...)
- Ahozko literatura (bertso, herri antzerki, igarkizunak, alegiak, atsotitzak, erran zaharrak, koplak, ...)

Haur eta gazteei zuzendu proposamenak begi onez ikusiak izanen dira.

**2- Egondia denboran, publikoarekin topaketa bat antolatua izanen da** Hendaian, idazleak bere ibilbidea aurkez dezan.

**3- Bi aurkezpen publiko antolatuak izanen dira egonaldiaren ondotik**, bata Iparraldean eta bestea Hegoaldean (komunikabideekin baita publiko zabalari zuzenduak)

**4- Idatzitako lanaren balorazioa** proposatua izanen da.

## BEREZITASUNA

---




Jatorrizko irudia : [https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Elcano\\_.jpg](https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Elcano_.jpg)

Egonaldia euskal sortzaile guziei zuzentzen zaie eta Juan Sebastian ELKANOn pertsonaia eta berak gauzatu zuen lehen MUNDUBIRAREN inguruko gai bati edo gai batzuei buruz bideratuko da: itsasketa, esplorazioa, aurkikuntza, kartografia, astronomia, itsasontzien eraikuntza...

Hamaikagarren urte honek Juan Sebastian ELKANO eta lehen mundubira argitan ezartzeko parada eskainiko du.

Alabaina, orain dela 500 urte, Euskaldunek gaitzeko egitandia burutu zuten, Getariako itsasgizon batek munduko itzulia egin baitzuen. Egitandi horrek garai hartako Euskal Herriak erakutsi zituen berezitasunetarik batzuk berraztertzeke balio du, hala nola indarra eta deliberamendua, bai eta euskaldunek itsasontzien eraikitzeko puntako teknologiaz zuten ezagutza, garai hartako itsasontzi hoberenak eraikitzeko gaitasuna eman zuena. Lehen mundializaziotzat hartua izan da garai hori eta gizakien arteko harremanetan izugarritzko eragina izan zuen, bere alde argi eta ilunekin.

Gaur egun oraino, oinarri horiek badira nolabait gure historiaren hari nagusia eta baliatu behar ditugu mendeurren hau garapen kulturalarendako, ekonomikoarendako eta humanoarendako aukera bat bilaka dadin.



Jatorrizko irudia : [https://es.wikipedia.org/wiki/Bautista\\_Agnese#/media/Archivo:1544\\_Battista\\_Agnese\\_Worldmap.jpg](https://es.wikipedia.org/wiki/Bautista_Agnese#/media/Archivo:1544_Battista_Agnese_Worldmap.jpg)

## BALDINTZAK

---

**Tokia :** Nekatoenea – Abbadiako eremua - 64700 Hendaia

**Datak/iraupena :** hilabete bat, 2021eko urriaren eta abenduaren artean

**Dirulaguntza:** 1500 €/hilabetea (zerga guziak barne)

Diru zama honek lehen 3 ardatzak estaltzen ditu. 4. ardatza garatzeko, laguntza gehigarri bat ekarria izanen da 2022an.

**Sortzailearen esku utziko dira:**

- Duplex moduko bizitegi bat, Abbadia eremuaren erdi-erdian kokatua den Nekatoenea etxean,
- Sorkuntza eremu bat, 36 m<sup>2</sup> ko atelier bat (ez ekipatua), apartamenduaren ondoan
- 50 GOkoko internet konexioa WIFI-aren bidez

- Ur, elektrika eta wifi gastuak, Hendaia Herriko Etxeak bere gain hartuko ditu.

Bizitegia eta sorkuntza tokia babestua den natura eremuaren erdi-erdian kokatuak izanik, artistak beharko du eremuaren araudia zorrozki errespetatu (autoak, bizikletak eta zakurrak debekatuak dira)

Informatika materiala ez da furnitua.

### **Egoiarraren gain diren gastuak :**

- Eguneroko biziari doazkion gastuak (egonaldiaren denborako janaria, garraioak...).
- Idazleak derrigorrez erantzukizun zibilaren eta alokairuaren asegurantzak hartu beharko ditu bere egonaldiaren denborako. Frogagiri bat erantsi beharko zaio errezibitze hitzarmenari.

## **HAUTAGAITZEN AURKEZPENA**

---

Hautagaiak aurkeztu beharreko elementuak :

- Azpiko formularioa osatua beharreko elementuekin
- CV-a
- Ibilbidea zehazten duen motibazio gutun bat
- Egonaldi egitasmoaren aurkezpen bat : orri bat guttienik eta lau orri gehieniko luzetasuna duen intentzio nota bat, jadanik idatzia den lagin batekin osatu daitekeena.

## **HAUTAKETA MOLDEA**

---

Partaide diren lau egituretako ordezkari banaz osatu epaimahai batek hautaketa egingen du aurkeztuak izanen diren egitasmoen artean.

**Hautagaitza aurkezteko epea : 2021eko ekainaren 15a: [jfrahier@hendaye.com](mailto:jfrahier@hendaye.com)**



**Abbadia eremuko Nekatoenea egonaldi tokia** Jatorrizko irudia : J. Larre ( eke.eus)

## **PARTAIDEAK**

---

**CPIE Euskal Itsasbazterra** ingurumenaren, artearen eta kulturaren heziketaren inguruan ari den elkarte bat da, 1986tik hona lurraldean ongi errotua dagoena. Deneri irekia da eta balore batzuk defendatzen ditu, hala nola elkartasuna, kultura eta hizkuntza ezberdintasunen errespetua, autonomia, herritarren erantzunkizuna ingurumenaren babestean aktiboki parte hartuz, ongi izate soziala eta gure lurraldearen garapen iraunkorra. Badu 20 urte Hendaia-ko Abbadiako eremuan kokatua den Nekatoenea etxe berriak artista egonaldiak errezibitzen dituela.

<https://cpie-littoral-basque.eu/>

**Euskal kultur erakundearen** misio nagusia euskal kulturaren garapena eta hedadura sostengatzea da. 1990ean sortu zenetik, Uztaritzen kokatua da. Euskal kulturaren babesteko, transmititzeko eta hedatzeko lanean ari da, sorkuntza sustatzen duen ber. Kide dituen kultura elkarteak ere hurbiletik segitzen ditu, izan dadin ikusgarrigintza, literatura, ondarea edo arte bisual eta plastikoen alorrean.

<https://www.eke.eus/eu>

**Euskal Idazleen Elkarte** 1982an sortutako irabazi asmorik gabeko elkarte da, euskal idazleen eskubide profesional eta moralak defenditzeko asmoz egituratua. 380tik gora bazkide ditu gaur egun, eta horrez gain, beste hauek ere badira bere xedeak: euskal literatura zabaltzea Euskal Herrian nahiz atzerrian, idazlearen lanaren proiektio soziala bideratzea eta euskalgintzaren eragile aktiboa izatea.

<https://www.idazleak.eus/>

**Elkano fundazioa** : Egun ezezaguna izaten jarraitzen duen historiako zati bat ezagutzera emateko sortu da fundazioa: munduaren inguruko lehen itzulia, Elkanok zuzendua, orain dela bost mende hain juxtu. Gizateriarentzat aldaketa garrantzitsuak ekarri zituen gertaera historiko hark hiru urteko iraupena izan zuen, eta euskaldunek, beste batzuekin batera, protagonismo handia izan zuten. Fundazioak aldi baterako iraupena izango du, hain zuzen ere espedizioak izan

zuen iraupen bera, eta helburu nagusi bat: herritarren jakin-nahia piztea gertakari garrantzitsu haiekiko eta gertakari horiek garaiko gizartean nahiz gizakiaren historian izan zuten ondorioekiko. Zer izan ginen euskaldunok orain bost mende eta zer izaten jarraitzen dugu gaur egun? Historiak, 500 urte geroago, agerian jartzen gaitu eta interpelatu egiten gaitu.

Bere asmoa da urtebetetze hau aukera bat izan dadin garapen kulturala, ekonomikoa eta humanoarentzat, eta ondare baten uztea ondoko belaunaldientzat.

<https://elkanofundazioa.eus/eu/>

# HAUTAGAITZA AURKEZTEKO BETE BEHAR DEN FORMULARIOA

**IZEN – DEITURA(K) :** .....

**SORTEGUNA :** .....

**HELBIDEA :**

.....  
.....  
.....

**MAIL :**

@.....

**TEL. :**

.....

**EGOERA:**

- Idazlea
- Marrazkilaria
- Beste :

Idazkera (edo marrazkigintza) zure ogibidea ote da ?

.....  
.....  
.....

Zein da zure ogibidea ?

.....  
.....  
.....